


## BEZERO-SEGMENTUAK



Gure aplikazioa, normala den bezala bezero mota bati egokituta dago. Gaur egun kirola egitearen kontzientziak nabari igo da, gero eta jende gehiago kirola egiten ari da eta horren ondorioz kirola egiten duen jende mota ere. Orain dela urte batzuk, oso kirolaria zen jendea egiten zuen kirola, momentu horretan gure aplikazioa ez litzateke gehiegi erabiliko, baina gaur egun, kirolak eta fitness-a izugarri igo dira mainstream jendearen inguruan horren ondorioz gure aplikazioa oso erabilgarria da, kirola egitera animatu den jende hau ezagutza fisiko asko ez dituelako eta prestakuntza fisiko handirik ez duelako.



Gaur egun kirola egiten duen jende mota aldatu denez, kirola egitearen ondorioak ere. Gero eta jende nagusiagoa egiten du kirola, hortaz, gero eta lesio gehiago gertatzen dira adina dela eta. Nagusiak azken urteetan kirolan sartu arren, egia da beren kapazitate ekonomikoa gazteena baino handiagoa dela, hortaz gure aplikazioa

gazteentzat, eta fisioterapeuta bat ordaintzeko kapazitate ekonomikoa ez duten nagusientzat egokituta dago nagusiki.



Horrez gain, kapazitate ekonomikoa eduki arren, gure aplikazioa oso baliagarria izan daiteke jende mota guztientzako, aplikazioak bezeroei bere lesioei buruzko erantzuna oso azkar ematen dizkielako.